

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat gordeta dagoen Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren Toki Erakundeetako aholkulari lanpostua betetzea (Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza)

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.b) artikulua adierazten du aldundien berezko eskumena dela udalerriei laguntza eta lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematea, betiere 1.000 biztanletik beherako udalerrietan idazkaritzako eta kontu hartzaileentzako zerbitzuak ematea bermatuz.

Eta 128/2018 Errege Dekretuaren 16. artikulua zehazten du, halaber, probintzietako aldundiek beren lanpostu zerrendetan sartuko dituztela estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak, probintzietako aldundiek bete beharreko eginkizunak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak direnak.

Bi manu horiek betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2021eko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, "1144.001 Toki Erakundeetako aholkulari lanpostua" estaturako gaikuntza duen toki administrazioiko funtzionarioentzat gordetako lanpostu gisa sailkatu da (azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza), eta horrela dago jasota Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 483/2021 Erabakian (azaroaren 12ko 649/2021 Erabakiak aldatua), zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Saileko lanpostuen zerrendaren aldaketa onetsi baitzen.

Lanpostu berria hutsik dago, eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari Lurralde Orekaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen abuztuaren 3ko 38/2021 Foru Dekretuaren 8 f) artikulua ematen dion eskumena ikusita, honako hau ebatzen dut:

Lehenengoa. 10 egun baliaduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita, Arabako Foru Aldundi honetako Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalako Toki Erakundeetako aholkulari lanpostua betetzeko hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkezteko, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulutik 51.era aurreikusitako legezko moduetako edozeinen bidez, eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Estatuko gaikuntza duen toki administrazioiko funtzionarioa izendatuko da, eta lanpostuaren azpieskala berekoak diren hautagaiek izango dute lehentasuna.

Aurrekoarekin batera, hautagai bat baino gehiago aurkeztekin bada, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan: parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Euskadiko Autonomia Erkidegoak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena.

Interesdunek Lurralde Orekaren Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorren bitartez.

Bigarrena. Estatuko gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Toki Erakundeetako aholkulari lanpostuak (Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza) ezaugarri hauek ditu:

Lanaldi osoa.

Destino-osagarriaren maila: 25.

Berariazko osagarria: 33.073,35 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4.

Derrigortasun data: Ez du.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako prozedurak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 23a

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

ERANSKINA

.....jaunak/andreak (NANa:;
jakinarazpenetarako helbidea:; herria:; telefonoa:
.....; helbide elektronikoa:), estaturako gaikuntza duen funtzionarioak,
..... azpieskalakoak, eta gaur egun toki
erakundearen lanpostua betetzen duenak, honako hau

Adierazten du

Jakin du Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Erakundeetako aholkulari lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapenaren edo zerbitzu eginkizunen bidez bete daitekeela.

Betetzen dituela lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, indarrean dagoen legeriaren arabera. Dagozkion izapideak betez, honakoa

Eskatzen du

Behin-behineko izendapenaren bidez edo zerbitzu eginkizunen bidez (ezabatu egokia ez dena) Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Zuzendaritzako Toki Erakundeetako aholkulari lanpostua betetzeko prozeduran parte hartzea.

Atxikita doaz:

- NANaren fotokopia.
- Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario izaera egiaztatze agiria.

..... (e) n, 2022ko aren

raSinadura.....